

f) EUSKERAZ, EUSKERAZAZ, EUSKERATZAZ, EUSKEREAZ:

A. Zatarain jaunaren txostena, euskera beraren *-az*, *-zaz*, *-tzaz* atzizkien aldakuntza aztertzen duena, adibide anitzez agertua.

Batzarraren bukaeran, aditzera eman da, uztailleko batzarra Iruiñean izango dela, Colegio Mayor Larraona delakoan Udako Euskal Unibertsitatearen inguruan.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*Juan San Martin*

1977 - VII - 29

Iruñan, "Colegio Mayor Larraona"ko gela nagusian, 1977ko uztailaren 29an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasanta buru, J. Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, J. Iriart-Urruty, A. Irigaray, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, M. Olasagarre (A. Damaso Intzakoa), J. San Martin eta J. M. Satrustegi jaun euskaltzainak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, J. Basterretxea, I. Berriatua, P. Charritton, M. Garde, J. Intxausti, J. M. Iriondo, J. L. Lizundia, I. Sarasola, P. Uribarren, F. Zabaleta eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak. V. Udako Euskal Unibertsitateko ikasleez gela beterik dela.

Diharce eta Larzabal jaunek ezin etorria adarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Ekaineko batzar agiria onartzean, J. M. Satrustegi jaunak aditzera ematen du, Arabako Foru Diputazioaren inguruan egin zituen jestio kontu haietan bi gauza zirela haurrei euskaraz irakasteko plangintza eta Colegio Universitariorako proposamena, eta ez agirian agertzen den bezala, biak batean nahasturik. Beraz, E. Knörr jaunaren proposamena Colegio Universitario-rena zela. Gainerakoan, agiria, onartzen da.

Euskaltzainburuak Gabriel Manterola euskaltzain ohorezkoaren hilberria eman du, eta idazkariak Manterola zenaren bizitzaz eta lanez zertzelada batzuk.

#### a) HAR-EMANAK:

Txomin Agirre eleberrri sariketarako epai-mahaiko jaun hauek izendatzen dira: P. Charritton, J. Intxausti eta I. Sarasola.

Diru laguntza eman digutenen zerrenda berria; Udaletxeak: Galdakao, 50.000,- pezeta; Getxo, 50.000,-; Luzaide, 1.000,-; Ordizia, 6.000,-; Villabona, 1.000,-; Belauntza 2.000,-; Leaburu-Gaztelu, 3.500,-; eta Maldearekak Urrotz, 5.000,-. Elkarateak: Irizar S. C. I. delakoak 10.000,- pezeta.

#### b) GOIZEKO BILKURAREN BERRI:

Euskaltzainburuak aditzera ematen du, 1968an Arantzazuko Batzarretan, euskararen batasunari buruzko bideak gomendatzean, hamar urteko epean jokabideak aztertzeaz hitz egin zela, eta orain dela ordua, helduden urtean (1978) Luis Eleizalde Euskaltzaindiaren sortzaileetako eta lehen euskaltzaineko bat zenaren ehunurteburua ospatzean bere jai-

terri den Bergaran batzartzeko. Batzarrak lau egun iraungo dute eta 10 urte hauetako lana aztertze eta batzarrak antolatze, hiru batzorde izendatzen dira: Hizkuntza batzordea, soziologi eta estadistika batzordea eta antolakizun batzordea. Eta hauek osatzeko arau nagusiak eta euskaltzaindiko enenak eman dira: 1) Hizkuntz batzordeari dagokio orain arteko batasun arauak biltzea, berrikustea eta osatzea. Zuzendaritzak jaun hauek proposatzen ditu batzorde honetarako: Luis Mitxelena, batzorde buru, J. A. Letamendia idazkari eta Haritschelhar, Lafitte, Irigoyen, Sarasola, Akesolo, Oregi, Kintana eta L. M. Mujika batzordekide. 2) Soziologi eta estadistika batzordeak batasun joerak herrian izan duen harrera, fruitu onak eta txarrak, dena beharko du neurtu eta kontuan hartu. Buru J. San Martin, idazkari J. Intxausti, batzordekide, irakaskuntza sailetik Xabier Mendiguren, idazleen aldetik Joan Mari Torrealdy, komunikabideetatik Martin Ugalde. 3) Antolakizun batzorderako, buru J. M. Satrustegi, idazkari J. L. Lizundia, batzordekide Mikel Lasa, Imanol Laspiur, Gerardo Elorza eta Simon de Arroyabe. Proposamenak onartzen dira eta batzordeak izendatuak gelditzen dira. Bakarrik, A. Irigaray jaunaren eskariz, lehen batzordea, alegia, hizkuntzarena, irekirik gelditzen da, hurrengo bilerararte, norbaitek gehiago proposatzeko aukera emanaz. Batzarreak 1978ko irailaren 4tik 9ra bitartean izango dira. Hurrengo urtean 1979an Seber Altube zenaren ehunurteburua izango denez, Arrasaten egingo da beste Batzarre Nagusi bat, baina euskal gramatikari loturik zuzenean.

Ana Maria Etxaide Itharte andereñoak, Euskaltzaindiaren babespean Nafarroako Unibertsitatea "Erizkizundi irukoitza" guzia argitaratzeko gertu dagoela, Ana Maria beraren aurkezpeneko sarrera batekin. Ontzat hartu da.

Alfabetatze-Euskalduntze Batzordearen Erregela Bereziak probisionalki onartu dira, helduden batzarrean birrespena ematekotan.

#### d) EUSKARA HERRIKOIAREN MAGNETOFOI BILKETAZ (jarraipena):

J. M. Satrustegi jaunaren txostena, ekainekoaren jarraipenez. Bere txostenean puntu hauek azpimarkatzen ditu: Magnetofoiak era askotako ekintzak antolatze duen ahalmena eta hasteko gertatu duen plangintza, euskara herrikoia biltzeko. Magnetofoi izatzen baino hobeto jasotzen bai dira hizkuntzaren azentu eta doinuak. Biltze lana egiteko arauak eta jaso daitezkeen gaiak adiarazten ditu.

"Azkue, euskara herrikoia I. bilketa" rako honako arautegi hau onartzen da:

1. Bilketa hau nahi duten guziak egin dezakete, eta edozein euskaltzaindikok hizkuntza herrikoia ontzat hartuko da, euskaraz delarik.

2. Ordu beteko gai izan ohi duen "cassette 60" izango da, berez, lanaren neurria, 90ekoa ere onartu daiteke.

3. Epai-mahaikoek ontzat emandako "cassette" bakoitzaren egileari bi mila pezeta ordainduko zaio bere gastuen sari. Lankide bakoitzak nahi hainbat lan aurkeztu dezake.